

ESKORIATZAN SORKUNTZA SUSTATZEKO ZEDEMONTRE I. TOPAKETA

Eskoriatzako Udalak "**ZeDemontre**" topaketaren lehen edizioa sortu du mota guztietako sortzaile edo artistentzat, musika, antzerkia edo taularatu daitekeen beste edozein modalitatetan.

Topaketa honen helburua egile, interprete eta sortzaileen sustapena bultzatzea da, kultur erakargarritasunak eta jarduera artistikoak bere estilo desberdinetan duten garrantzia indartzea eta suspertzea, eta eskoriatzarren kulturarekiko interesari irtenbidea ematea.

ZeDemontre sortzaile edo artista ez-profesionalentzako topaketa da, ez-profesionaltzat hartuta lehiaketara aurkeztutako emanaldiarekin jarduera profesionalik egiten ez dutenak.

1.- OINARRIAK.

1.1.- **Eskoriatzan jaiotako edo erroldatutako pertsona guztiek** parte hartu ahal izango dute topaketa honetan. Taldeen kasuan, taldea osatzen duten pertsonetako bat, gutxienez, Eskoriatzan jaiotakoa izan beharko da edo bertan erroldatuta egon.

1.2.- Parte hartzen duten pertsonak edo **taldeek gutxienez 45 minutuko saioa** egin beharko dute zuzenean.

1.3.- **Banaka nahiz taldean** parte hartu ahal izango da, eta ez dago adin mugarik

1.4.- Emanaldiak **uztailaren 15, 16 eta 17ko** aste bukaeran izango dira, parte-hartzaileek eta antolatzaileek adostutako egun eta orduetan.

Ezin bada data bat adostu, partehartzaileek ezin dutelako antolatzaileek proposatutako datetan emanaldia eskaini, egin barik eta topaketa honetatik kanpo geratuko dira.

1.5.- Izena emateko epea **ekainaren 20an amaituko da**. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da: izena emateko orria behar bezala beteta, bakarlariaren edo taldearen argazki bat, historia biografiko labur bat eta hautaketa faserako komenigarritzat jotzen duten ikus-entzunezko edozein informazio.

Eskaerak Eskoriatzako Udaleko H@ZI zerbitzuan aurkeztu daitezke, edo, telematikoki, www.eskoriatza.eus

1.6.- Kultura eta Kirolak batzordeak izendatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia. Epaimahaia eskaera guztiak aztertuko ditu, eta ahalegina egingo du eskaera guztiek topaketan parte har dezaten, baina programatu daitekeen baino emanaldi eskaera gehiago izanez gero, aukeraketa bat egin beharko da.

Aukeraketa egiteko aurkeztutako materialaren kalitatea izango da kontuan.

1.7.- Izena emateko epea amaitu eta hautaketa egin ondoren, Udala harremanetan jarriko da izena eman dutenekin emanaldiaren eguna, ordua eta bestelako xehetasunak lotzeko.

1.8.- Topaketa goian aipatutako aste bukaeran egingo da, hau da, uztailaren 15, 16 eta 17koan. Udalak jarriko ditu behar diren azpiegiturak: eszenatokia, argi eta soinu ekipoa...

Emanaldiak ahal den neurrian aire zabalean egingo dira, baina eguraldi txarragatik edota parte-hartzaileek nahiago dutelako, Zaldibar antzokia, Ibarraundi museoa edota udalaren gainontzeko eraikuntzak erabili ahal izango dira.

1.9.- Emanaldien aurkezpenak eta azalpenak euskaraz izatea baloratuko da.

1.10.-Topaketan parte hartu dutenen artean sari bakarria egongo da, **400 eurokoa**, ondorengo irizpideen arabera:

- Kalitatea.
- Taularatzea eta estetika.

Saridunaren **emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero**, 100 euro gehituko zaio sariari, hau da, **guztira 500 euro** izango dira.

Sariduna erabakitzeko publikoaren botoa eta epaimahairena izango dira kontuan. Publikoarenak puntu bat balio du, eta, epaimahaiarenak, bi puntu.

1.11.- Gainontzeko parte hartzaileen artean **hainbat accesit banatuko dira: 100 euro, banakakoei; 150 euro, bikoteei eta 250 euro, taldeei.**

Horretaz gain, emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz egin dutenei 50 € gehiago emango zaie.

1.12.- Lehiaketaren aurrekontua 3.000 eurokoa izango da guztira.

1.13.- Oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein gertakari edo horien interpretazioari buruzko zalantzak Kultura eta Kirola batzordeak erabakiko ditu, edo, hala badagokio, Udalak izendatutako epaimahaiak.

2.- ARAUDI APLIKAGARRIA.

Oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dute topaketa hau, eta baita onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (GAO 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a)

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.

Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Plan Estrategikoa (2020ko martxoaren 17ko GAO).

3.- DATUAK BABESTEKO LEGERIA.

Datuak babesteko legeriarekin bat etorriz, jakinarazten dugu eskabideekin batera doazen datu pertsonalak Eskoriatzako Udalaren ardurapean tratatuko direla parte-hartzaileak identifikatzeko helburuarekin. Parte-hartzaileen zerrenda udalaren webgunean eta komunikabideetan argitaratuko dela jakinarazten da.

4.- ORGANO ESKUDUNA.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

5.- DIRU IZENDAPENA.

Aurrekontu izendapena 3.000 eurokoa da, eta 2022an honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: .0400.480.334.80.01

Iº “ZEDEMONTRE TOPAKETA” DE PROMOCIÓN DE LA CREACIÓN EN ESKORIATZA

El Ayuntamiento de Eskoriatza ha creado la primera edición de "ZeDemontre topaketa" para todo tipo de creadores o artistas, ya sea música, teatro o cualquier otra modalidad que se pueda representar en un escenario.

El objetivo de este “ZeDemontre topaketa” es impulsar la promoción de autores, intérpretes y creadores, potenciar y recuperar la importancia del atractivo cultural y la actividad artística en sus diferentes estilos, y dar cauce al interés de los eskoriatzarras por la cultura.

“ZeDemontre” es un encuentro para creadores o artistas no profesionales, considerando como no profesionales a los que no realizan actividades profesionales con la actuación presentada al concurso.

1.- BASES.

1.1.- Podrán participar en “ZeDemontre topaketa” todas las personas nacidas o empadronadas en Eskoriatza. En el caso de los grupos, al menos una de las personas que componen el grupo deberá haber nacido o estar empadronada en Eskoriatza.

1.2.- Las personas o grupos participantes deberán realizar **una actuación en directo de al menos 45 minutos.**

1.3.- Se podrá participar **individualmente o como grupo**, y no existe límite de edad.

1.4.- Las actuaciones tendrán lugar el fin de semana del 15, 16 y 17 de julio, en los días y horas acordados entre los participantes y la organización.

En el caso de que no se pueda acordar una fecha, porque los participantes no puedan ofrecer la actuación en las fechas propuestas por la organización, no podrán actuar y quedarán fuera de esta edición.

1.5.- El **plazo de inscripción finaliza el 20 de junio**. La documentación a presentar es la siguiente: hoja de inscripción debidamente cumplimentada, una fotografía del solista o grupo, un breve historial biográfico y cualquier información audiovisual que consideren conveniente para la fase de selección.

Las solicitudes se pueden presentar en el servicio H@ZI del Ayuntamiento de Eskoriatza o, telemáticamente, en www.eskoriatza.eus

1.6.- El Jurado estará compuesto por las personas designadas por la Comisión de Cultura y Deportes. El jurado estudiará todas las solicitudes y procurará que todas ellas tomen parte en este programa, pero si hay más solicitudes de actuaciones de las que se puedan programar, se realizará una selección.

Para realizar la selección se tendrá en cuenta la calidad del material presentado.

1.7.- Una vez finalizado el plazo de inscripción y realizada la selección, el Ayuntamiento se pondrá en contacto con los inscritos para acordar el día, hora y otros detalles de la actuación.

1.8.- El encuentro se celebrará el fin de semana arriba indicado, esto es, **los días 15, 16 y 17 de julio**. El Ayuntamiento aportará las infraestructuras necesarias: escenario, equipo de luz y sonido...

Las actuaciones se desarrollarán, en la medida de lo posible, al aire libre, pero bien por las inclemencias meteorológicas o por la preferencia de los participantes, se podrá utilizar Zaldibar antzokia, el museo Ibarraundi o el resto de edificios municipales.

1.9.- Se valorará que las presentaciones y explicaciones de las representaciones sean en euskera.

1.10.- Únicamente habrá un premio entre los asistentes al ZeDemontre topaketa, dotado con **400 euros**,

de acuerdo con los siguientes criterios:

- Calidad.
- Puesta en escena y estética.

Si más de la mitad de la actuación del premiado es en euskera, se añadirá 100 euros al premio, lo que supone un **total de 500 euros**.

Para decidir el ganador se tendrá en cuenta el voto del público y el del jurado. El voto del público vale un punto y, el del jurado, dos.

1.11.- Entre el resto de participantes **se repartirán varios accésit**: 100 euros a actuaciones individuales, 150 euros a actuaciones de parejas y 250 euros a grupos.

Además, se concederá 50 € más a quienes hayan realizado más de la mitad de su actuación en euskera.

1.12.- El presupuesto total de ZeDemontre es de 3.000 euros.

1.13.- Cualquier incidencia no prevista en estas bases o dudas sobre su interpretación serán resueltas por la Comisión de Cultura y Deporte o, en su caso, por el jurado designado por el Ayuntamiento.

2.- NORMATIVA APLICABLE.

“ZeDemontre topaketa”, así como la relación jurídica entre el beneficiario y la entidad concedente, se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de la concesión de las subvenciones.

Para lo no previsto en estas bases serán de aplicación:

- La Ordenanza General reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG nº 85, de 10 de mayo de 2021).
- La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18-11-2003) y Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, de desarrollo de la misma.
- El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza 2020-2023 (BOG del 17 de marzo de 2020).

3.- NORMATIVA DE PROTECCIÓN DE DATOS.

De conformidad con la normativa de protección de datos, informamos que los datos personales que acompañan a las solicitudes serán tratados bajo la responsabilidad del Ayuntamiento de Eskoriatza con el fin de identificar a los participantes. Se informa que la lista de participantes se publicará en la web municipal y en los medios de comunicación.

4.- ÓRGANO COMPETENTE.

El órgano competente para la aprobación de estas bases es el Alcalde (según lo previsto en el artículo 22.2.e de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local).

5.- DOTACIÓN ECONÓMICA.

La consignación presupuestaria es de 3.000 euros y se financiará en 2022 con cargo a la aplicación presupuestaria 0400.480.334.80.01

